

ECMS'09 Kongresuaren itxiera ekitaldia Arrasateko Iturripe Kanpusean

2009/07/15

Mondragon Unibertsitateko Mondragon Goi Eskola Politeknikoan uztailaren 8tik 10era egin zen kongresua, 9th International Workshop On Electronics, Control, Measurement Systems and Signals, arrakastatsu amaitu zen. Kongresu hau bi urtetik behin antolatzen dute honako unibertsitate hauek lankidetzan: Liberec-eko Unibertsitate Teknikoa, Txekiar Errepublika, Toulouseko Paul Sabatier Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. 2009ko ekitaldia, lehenengo aldiz, Mondragon Unibertsitateak antolatu eta garatu du. Ikertzaileak Arrasaten elkartu dira euren lanak komunitate zientifikoari aurkezteko. Kongresu honetan batez ere Txekiar Errepublikako, Frantziako (15 lagun nazio bakoitzetik) eta Espainiako (33 parte hartzaile) ikertzaileek parte hartu dute, baina, Aljeriako, Gambiako, Indiako eta Marokoko ikertzaileak ere bertaratu dira.

Antolatzaileek egiten duten balorazioa positiboa da, alde batetik, aurkeztutako 42 ponentziak izandako kalitateagatik, zeintzuk 10 saio tekniko eta gonbidatuetan banatuta egon ziren. Eta beste alde batetik, Europako Unibertsitateen bateratzean lankidetzarako sortu diren etorkizuneko ildoengatik, zeinak Bolonian oinarritzen diren. Parte hartzaileek Arrasateko Alkatesaren presentzia eskertu zuten, zeinak hitz batzuk esan ondoren oparitxo bat eman zien parte hartzaileei. Ekitaldi honen hurrengo edizioa, hamargarrena, Lieberec-en, Txekiar Errepublikan egingo da bi urte barru.

